

Biomimetika



Irudia: Hegaldia (Arkaitz Barriola "Biomimetika" testuan oinarrituta)

Biomimetika hitzak bizitza imitatzeari egiten dio erreferentzia: **konponbideen bilaketan naturan arrakasta izan duten eredu en erabilpena**. Oinarrian daude naturaren egituren, aukeren eta mekanismoen behaketa eta ezagutza. Halaber, biomimetika kontzeptuaren baitan hainbat ezaugarri hartzen dira kontutan: naturaren funtzionamendua bere baitan dauden energiari esker ematen da (eguzkia, mareak, haizea...), behar duen energia besterik ez du erabiltzen, ingurura egokitzen da, guztia birziklatzen du, kooperazioa saritzen du, gehiegikeriak frenatzen ditu, barruko ezagutzan oinarritzen da... [Ingeniería bioinspirada. Eddie Nahúm A.M. etabar]

Biomimetikaren ikuspuntutik lan egin eta emaitzak lortzeko ezinbestekoa da **diziplina ezberdinen arteko elkarlana**. Halaber, hasieran aipatutako parametroetan aritzeko horiekiko sentsibilitatea eduki beharko lukete ikerlariek eta, behin testuinguru horretan kokaturik, **elkarlanak** izango luke **giltza**: ezinbestekoa **adin tarte desberdinetako pentsalarien zein ekintzaileen ekarpenak** (haurrak zein helduak) bai eta ekologoek, biologoek, ingeniariak, zientzialariak eta teknologoek jakintza komuna. Bakoitzak bere modura baina prisma beretik begiratu beharko genioke inguratzen gaituen munduari eta, hala, estetika eta erosotasun zehatzetatik at indibiduoaren oinarritzko osasuna zein osasun kolektiboa eta bere ingurua kontutan hartzen dituen emaitzak landu.

Oso interesgarriak dira Janine M. Benyus-en *BIOMIMICRY* liburuan agertzen diren azalpenak eta lan egiteko moduak. Bertatik hartua da ondorengo esaldia

“... natura azpian hartzeko ohitua duen gizarte batean, begirunez beteriko imitazioa hurbilpen berri eta iraultzailea da. Iraultza industrialak ez bezala, iraultza biomimetikoak garai berezi batean txertatzen gaitu, zeinean, naturatik ahalik eta etekin handiena ateratzen naturarengatik ikastera pasatzen garen...”

Natura sortzaile nagusia da eta berak dagoeneko konpondu ditu guk ebatzi nahi ditugun arazoak. Animaliek, landareek eta mikrobio txikiak ere bere baitan erantzun guztiak dituzte, haien bilakaerak ingurua kontutan hartuta erantzunak aurkitu baitituzte. **Gu aldiz, horren parte izaki, geroz eta urrutiago kokatzeko joera daukagu, guztiaren parte izatetik sortzaile bakarraren hegemonia inposatu nahian.**

Historian zehar kontzeptu hau beti egon da gurean presente, garapen teknologikoan, sozialean zein kulturean. Egun korrante honek garapenaren giltzetako bat dauka eta espero dut bere oinarriko filosofia mantenduz indar handiagoa hartzea.

Naturari bizkarra emateak eta ekosistemaren mesederako baino talde pribilegiatuarentzat lan egiteak harrapakin kontrolaezinean bilakatu gaitu; gure artean modu basatienean elkarri jaten ari gara (gure buruak barne). Naturak bide bat erakusten digu, zergatik ez pausatu eta hura entzuten gure barnetik irtenbideak bilatu? Naturaren apartekotasunaren imitazioak espezie bezala bizirauteko aukera ematen digu eta etorkizun hori jasagarria da; berak eusten du ingurua eta inguruak eusten du bere forma guztiak, oreka.

Barruan eta naturarekin konektatua dugun sortzailea askatzeko proposamena luzatu nahi dizuet, etzi beste ingurua eta erlazionatzeko eredu bat eraiki dezagun!

Testua: Nora Barroso Moreno

Irudia: Hegaldia - Arkaitz Barriola “Biomimetika” testuan oinarrituta

Iturria: <https://etzi.pm/2016/04/biomimetika/>